

UPV/EHUK, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I. Planaren (2010-2013) 2.2 puntua eta Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Euskal Legearen 33.2 artikulua betez, jatorriz edo adopzioz euskaldunak ziren eta hainbat lanbidetan aitzindariak izan ziren emakume haien izenak eta ekarpenak berreskuratzeko lanean jarraitzen du.

Aurkezten duen bigarren izena Micaela Josefa Portilla Vitoria da, 1922ko uztailean Gasteizen jaioa. Antropologo, historialari eta pedagogo ospetsua. Besteak beste, *Eusko Ikaskuntzaren* Manuel Lekuona saria jaso zuen, eta UPV/EHUK *honoris causa* doktore izendatutako lehenengo emakumea izan zen (1993an).

Maisu-maistra ikasketak egin zituen, ondoren Filosofia eta Letrak ikasi zituen, eta 1977an bere doktore tesia argitaratu zen ("*Torres y casas fuertes en Álava*"). Bere maisu eta lagun José María Azcárate Ristori vigoarra izan zuen tesi-zuzendari. Eskolako testuliburuak egin zituen, hizlari eta prentsako kolaboratzaile gisa jardun zen, eta dibulgaziozko zein zientzia arloko mahai-inguru eta biltzarretan parte hartu zuen.

Aipamen hau bere dibulgatzeko zaletasun handiari, bere nortasun atseginari, lanerako prestasunari, eta maistra lanarekin batera egin zituen ikasketa eta ikerketei zor zaie.

Micaela Josefa Portilla Vitoria (1922-2005)



“Beretzat zientzia, zehaztasuna eta arreta, ikerketarako ezinbesteko baldintzak, azken finean, ez ziren mundu osoarengana iristeko nahiarekin bateraezinak. Alderantziz. Agerikoa zen ezagutza horiek zabaltzeko bere kezka”.
(Henrike Knörr)

Memoria bikaina zuela nabarmentzen du haren ilobak: «Pertsonaia historikoen bizitzako xehetasun txikienekin ere gogoratzeko gai zen. Etxean ginela, Ayala kantzilerraz hizketan sartzen zen, adibidez, kalean topatu izan balu bezala. Haren bizitza ñabardura guztiakin kontatzeko gai zen, eta memoria sinestezin horri eutsi zion bere azken egunetaraino».

Historia eta arte arloan ikertzeko, ikasteko eta eskolak emateko gaitasun handia izateaz gain, inoiz ez zen handinahia izan, eta laguntzeko prest agertzen zen inork ezer eskatuz gero. Hala esaten da: «Bere etxea denon etxea zen. Ateak zabalik izaten zituen ezer galdetu nahi zionarentzat».

IKASKETA FEMINISTEI EDO GENERO IKERKETEI BURUZKO TESI ONENAREN *MICAELA PORTILLA VITORIA SARIAREN* I. EDIZIOAREN DEIALDIA -2012-

1. DEIALDIAREN HELBURUA ETA APLIKAZIO EREMUA

UPV/EHUren Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I. Planaren (2010-2013) 2.2 puntuan aurreikusitako ekintza betez, "ikerketan genero ikuspegia bultzatzea, baita genero ikerketak eta ikerketa feministak ere", UPV/EHUK *MICAELA PORTILLA VITORIA* Saria sortu du ikasketa feministei eta genero ikasketei buruzko tesi onenarentzat.

Aurkeztutako tesien kalitatea halakoa izanez gero, saria partekatu ahal izango da.

Eta, UPV/EHUren eleaniztasun politika eta jakintza adar desberdinak daudela kontuan hartuta (Arteak eta Giza Zientziak; Zientzia Esperimentalak; Osasunaren Zientziak; Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak; eta Ingeniaritza eta Arkitektura), 2 accesit ere eman ahal izango dira, beren kalitatea dela eta, Epaimahaiaren iritziz, aipamen hori merezi duten lanentzat.

Saria ohorezkoa da soilik.

2. ESKAERAK BETETZEA, AURKEZTEA ETA HORRETARAKO EPEAK

Saria jasotzeko hautagai izan daitezke 2012an defendatu diren eta aho batez "gai cum laude" kalifikazioa jaso duten tesiak.

Eskaera egilearen eta zuzendariaren sinadurarekin eta tesiari dagokion sail edo institutuko zuzendariaren oniritziarekin aurkeztu beharko da.

Aurkeztutako tesiak, egilearen izenik gabe, posta elektronikoz bidali beharko dira berdintasuna@ehu.es helbidera, pdf formatuan, edukiaren laburpen batekin (gehienez 500 hitz).

Eskaerak aurkezteko epea 2013ko apirilaren 19an amaituko da.

Eskaerak Erregistro Orokorreko edozein bulegotan aurkez daitezke, Berdintasunerako Zuzendaritzari zuzenduta (Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren Errektoreordetza, Sarriena auzoa, zk.g., 48940 Leioa).

Aurkeztutako dokumentazioa ez badago osatuta edo zuzentzeko moduko akatsak baldin baditu, sari eskaera aurkezten dutenei errekerimendua egingo zaie, 10 egun balioduneko gehienezko epean akatsa zuzen dezaten edo beharrezko dokumentuak aurkez ditzaten, eta, hala egin ezean, beste izapiderik gabe, eskaera artxibatu egingo dela jakinaraziko zaie.

Deialdi honetako Epaimahaiak deialdia ebazteko egoki iritzitako informazio osagarria eskatu ahal izango du.

3. PROZEDURA, EPAIMAHAIA ETA EBAZPENA

Epaimahaia UPV/EHUko Berdintasunerako Batzordeko bost irakasle eta ikertzailek osatuko dute. Horietakoren batek lotura akademiko edo familiarren bat izanez gero aurkeztutako tesiren baten egilearekin edo zuzendariarekin, baztertu egingo da, eta Berdintasunerako Batzordeak beste bat jarriko du haren ordean.

Epaimahaiak iritzia eskatu ahal izango die aparteko profesional, ikertzaile edo espezialistei.

Sariak emateko, honako alderdi hauen arabera baloratuko dira lanak:

- Gaiaren eta ekarpenen garrantzia eta originaltasuna
- Lanaren kalitatea eta hori egiteko zailtasuna
- UPV/EHUko Berdintasunerako I. Planeko printzipioekiko koherentzia

Epaimahaiak, 2013ko uztailaren 30a baino lehen, <http://www.berdintasuna.ehu.es> web orrialdean ezagutaraziko du deialdiaren emaitza: irabazlearen izena, zein sailletakoa den, tesi-zuzendariaren izena eta saritutako tesiaren edo tesien laburpena.

Saria eta, hala badagokio, accesitak 2014ko martxoaren 8ko ekitaldi akademikoan emango dira, Gipuzkoako Campusean.

Sariketan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.

Leioan, 2013ko martxoaren 18an

Maite Zelaia Garagarza

UPV/EHUko Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren errektoreordea

ESKAERA

SOLICITUD

IKERKETA FEMINISTEI EDO GENERO
IKERKETEI BURUZKO TESI ONENAREN
MICAELA PORTILLA VITORIA SARIAREN I.
EDIZIOAREN DEIALDIA
-2012 -

CONVOCATORIA DE LA I EDICIÓN DEL PREMIO
MICAELA PORTILLA VITORIA A LA MEJOR TESIS
SOBRE ESTUDIOS FEMINISTAS O DE GÉNERO
-2012-

AUTOREAREN DATUAK/DATOS DE LA AUTORA O AUTOR

NAN/DNI Lehen abizena/Primer apellido Bigarren abizena/Segundo apellido Izena/Nombre

Helbidea (kalea, zk., solairua)/Dirección (calle, nº, piso) Herria/Localidad PK/C.P. Telefonoa E-maila

Sinadura/Firma

ZUZENDARIAREN DATUAK/DATOS DE LA DIRECTORA O DIRECTOR

Sailaren izena/Nombre del Departamento

Tesiaren izenburua/Título de la tesis

Zuzendariaren izena, helbide elektronikoa eta telefonoa/Nombre de la directora o director e-mail y teléfono

Sinadura/Firma

Atxikitako dokumentuak/Documentos anexos

Δ Sail edo institutuko zuzendariaren oniritzia/Visto bueno de quien dirige el Departamento o Instituto

Δ Tesiaren kalifikazioaren eta defentsa egunaren ziurtagiria/Certificado de calificación y día de defensa de la tesis

Δ Hala badagokio, sari berezia lortzeko proposamenaren ziurtagiria/ Si procede, certificado de propuesta para premio extraordinario